





Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2016ko EKAINA

ENPRESAREN EKONOMIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

JUNIO 2016

ECONOMÍA DE LA EMPRESA

**Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.  
Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.**

## A AUKERA

### A1. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2,5 puntu.

Irakur ezazu testua, eta erantzun galderei:

#### EUSKAL ENPRESA BATZUEK EB-REN LAGUNTZAK JASO DITUZTE HAZTEKO

Zortzi euskal enpresak jaso dituzte 2014an Europar Batasunaren **Pyme** tresnaren laguntzak. Programa horren bidez, laguntza ematen zaie berrikuntza-proiektu baten bidez hazi, garatu eta **nazioartekotu** nahi duten enpresei. SPRik adierazi duenez, plana "erakargarria da: 2.800 milioi euroko zuzkidura du hurrengo zazpi urteetarako, eta Horizonte 2020 programaren parte da, hau da, ikerketa eta berrikuntza bultzatzeko europar estrategiaren parte".

Hauek dira euskal enpresa onuradunak: Biolan, Graphenea, Sapa Operaciones, Bioftalmik, Artinet, Lointek, Farsens eta Lancor. Bioteknologia, nanoteknologia, **automobilgintza**, telekomunikazio edo energiaren sektoreetako enpresak dira. Espainia da programan enpresa gehien dituen herrialdea: 84.

Europako plan horrek faseka funtzionatzen du. Lehenengoan, aztertzen da zer **bideragarritasun** zientifiko edo tekniko eta zer potentzial komertzial duen ideia berri batek berrikuntza-proiektu bat garatzeko (kontzeptu-proba).

Ebaluazio horren emaitza positiboak aukera ematen du **finantzaketa** izateko hurrengo faseetan. Lau euskal enpresa sartu dira fase horretan, Estatuko 72 enpresaren artean.

Bigarren fasea frogapenetara eta erreplikazio komertzialera zuzenduta dago; hartan, laguntza ematen da frogapen-jardueretara bideratutako ikerketa eta garapenerako (probak, prototipoak, hedatze-azterketak, diseinua, prozesu berritzaile pilotuak, produktu eta zerbitzuak, eta errendimenduaren egiaztapena).

Bada hirugarren fase bat ere, **merkaturatzea**, zuzeneko finantzaketarik ez duena. Zenbait laguntza-ekintza hartzen ditu barne, hala nola arrisku-kapitaleko zenbait europar erakunderi aurkeztea.

Galderak:

- Adieraz ezazu testuan azpimarratutako hitzen esanahia.
- Zer beste finantzaketa mota izan ditzake enpresak? Azaldu itzazu enpresek balia litzaketan mota horietako 2.



**A2. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.**

Bagurpil S.A. enpresak bizikletak fabrikatzen ditu, eta erabaki behar du bi aukera hauen artean zein den interesatzen zaiona: eskulekuak erostea ala fabrikatzea. Merkatuan, eskulekuak 10 €-an eros litzake unitateko; enpresak berak eskulekua fabrikatuz gero, berriz, kostu finkoak 225.000 € eta unitateko kostu aldakorak 5 € lirateke.

Datu horiekin:

- Zer egin behar du enpresak, urtean 50.000 eskuleku behar baditu? Eskulekuak fabrikatu ala erosi?
- Eta 60.000 eskuleku fabrikatuko balitu, zenbateko irabazia lortuko luke fabrikatzeagatik eta ez erosteagatik?
- Irudikatu grafikoki aurreko egoera biak.

**A3. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 1,5 puntu.**

Enpresa batek ondare-elementu hauek ditu:

Kapital Soziala	130.000 €
Makineria	140.000 €
Hornitzaileak	40.000 €
Bezeroak	40.000 €
Informatikako elementuak	20.000 €
Eraikinak	80.000 €
Erreserbak	30.000 €
Bankuak, k/k	60.000 €
Epe luzeko zorrak	160.000 €
Izakinak	60.000 €
Epe laburreko zorrak	40.000 €

Hau eskatzen da:

- Egoera-balantzea ondare-masatan ordenatuta aurkeztea.
- Maniobra-funtsa kalkulatzeko.
- Enpresaren finantza-egoera deskribatzea, maniobra-funtsa kontuan hartuta.



**A4. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2,5 puntu**

INBETO enpresak inbertsio berri bat egiteko asmoa du, eta aukera batzuk aztertu behar ditu:

Proiektua	Hasierako ordainketa	Kutxako fluxu garbiak				Hondarbalioa
		1. urtea	2. urtea	3. urtea	4. urtea	
Antoa	110.000 €	25.000 €	50.000 €	70.000 €	60.000 €	8.500 €
Bentoa	150.000 €	14.000 €	69.000 €	80.000 €	6.000 €	9.335 €

Inflazio-tasa metatua % 2 baldin bada eta enpresak eskatzen badu gutxieneko errendimendua, inflaziorik gabe, % 5 izatea, kalkula ezazu hau:

- Zein da inbertsiorik errentagarriena, haietako bakoitzaren Balio Eguneratu Garbiaren arabera? Arrazoitu erantzuna.
- Errentagarriak dira bi inbertsioak? Arrazoitu erantzuna.
- Egokia da BEG (balio eguneratu garbia) metodoa inbertsioen artean aukeratzeko? Zergatik?

**A5. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 1,5 puntu**

Definitu edo azal itzazu hitz esanahia hauek:

- Kostu finkoak.
- Kostu aldakorak.
- Kostu zuzenak
- Zeharkako kostuak.



## B AUKERA

### B1. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

GURUONDO enpresan, bizikleten jarlekuak egiten dituzte. Iaz, 3 langile aritu ziren lanean; bakoitzak egunean 8 orduz eta urtean 250 egunez lan egin zuen, eta 4 makina erabili zituzten 956.000 jarleku egiteko. Aurten, berriz, 4 langile ari dira egunean 7,5 orduz eta urtean 252 egunez; 3 makina erabili dituzte, eta 1.030.000 jarleku egin dituzte.

Azter ezazu enpresaren eskulanaren eta makinaren produktibitatearen bilakaera.

### B2. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 2 puntu.

SUKART S.A. enpresak sukaldeko tresnak merkaturatzen ditu. Azaroan, Indukta ereduko zartaginen biltegi mugimenduak hauek izan dira:

11/01	Hasierako izakinak	300 unitate	15 €/unitate
11/03	A bezeroari saldua	50 unitate	22 €/unitate
11/08	C hornitzaileari erositakoa	150 unitate	18 €/unitate
11/09	B bezeroari saldua	120 unitate	23 €/unitate
11/15	A bezeroari saldua	25 unitate	23 €/unitate
11/20	C hornitzaileari erositakoa	230 unitate	20 €/unitate
11/26	B bezeroari saldua	140 unitate	25 €/unitate

Aurreko datuak aintzat harturik, bete ezazu azaroko biltegi-fitxa FIFO eta batez besteko prezio haztatuaren (BPH) metodoak erabiliz, eta kalkula ezazu bukaeran zenbat unitate izango diren eta zer balio izango duten.

### B3. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 4,5 puntu.

AZKUNE SA enpresaren jarduera ekonomikoa altzariak egin eta merkaturatzea da. Azkenengo urteko abenduaren 31n, haren ondarea (**eurotan**) elementu hauekin osaturik zegoen:

1. Lokalak.....	30.000.000
2. Lurrak.....	10.000.000
3. Lehengaien hornitzaileekin duen zorra.....	200.000
4. Gizarte Segurantzarekin duen zorra.....	160.000
5. Bazkideen ekarpenak.....	12.000.000
6. Ordenagailuak.....	500.000
7. Legezko erreserbak.....	2.000.000
8. Programa informatikoak.....	400.000
9. Altzariak saltzeagatik kobratzeko dituen fakturak.....	250.000
10. Biltegian gorderik dauden lehengaiak.....	300.000



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2016ko EKAINA

ENPRESAREN EKONOMIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

JUNIO 2016

ECONOMÍA DE LA EMPRESA

11. Altzariak garraiatzeko kamioiak.....	3.000.000
12. Ibilgetuaren amortizazio metatua .....	6.000.000
13. BBVAn daukan kontu korrontearen saldoa .....	100.000
14. Kamioi bat erosteagatiko zorra, 6 hilabete barru ordaindu beharrekoa .....	200.000
15. Lehengaiak erosteagatik onartutako letrak.....	90.000
16. Kamioi batzuk erosteagatiko zorra, 13 hilabete barru ordaindu beharrekoa .???????	
17. Bezeroek onartutako letrak .....	250.000
18. Eskudirua .....	20.000
19. Foru Ogasunarekin duen zorra.....	75.000
20. Kutxabankek emandako mailegua, 2 urte barru itzuli beharrekoa.....	15.000.000
21. Lurrak erosteagatiko zorra, 3 urte barru ordaindu beharrekoa .....	8.000.000
22. Biltegi gorderik dauden altzariak .....	500.000
23. Urteko emaitzak (irabaziak).....	745.000

Hau eskatzen da:

- Enpresaren balantzea ondare-masatan sailkatuta aurkeztea.
- Errotazio-funtsa edo maniobra-funtsa kalkulatzeko eta emaitza aztertzea.
- Enpresaren finantza-egoera aztertzea, ratio hauek erabiliz:
  - Altxortegia
  - Likidezia
  - Bermea
  - Zorpetze osoa
  - Ibilgetua
  - Finantza-autonomia

#### B4. GALDERA: Gehieneko puntuazioa: 1,5 puntu.

Foru-ogasunek, zerga bidez, 12.319 milioi euro bildu zituzten 2014an. Igoera handiena **BEZ**ean gertatu zen, % 12 handitu baitzen. **PFEZ**agatiko bilketa, berriz, % 2,9 besterik ez zen igo. Bestalde, **sozietate-zergaren** bilketak % 4,7 egin zuen behera, eta **zerga berezienak** % 2,4. Diputazioek bildutako guztiaren % 70 Eusko Jaurlaritzari eman behar diote.

Defini edo azaldu ezazu azpimarratuta dauden hitzen esanahia.

# BILTEGI FITXA

ERIZPIDEA:

ARTIKULUA:

DATA	DESKRIPZIOA	SARRERAK			IRTEERAK			IZAKINAK		
		Kantitatea	Prezioa	Balioa	Kantitatea	Prezioa	Balioa	Kantitatea	Prezioa	Balioa

IZAKINEN BALIOA:  
UNITATE KOPURUA:



## CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

### ENPRESAREN EKONOMIA

Ikasleari ariketa bakoitzean bi aukera ematen zaizkio, A eta B. Bi aukerek 4 edo 5 galdera dituzte. Galderak balioesteko, Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 3ko 23/2009 DEKRETUAn ekonomia- eta enpresa-gaiekin lotuta eta eskumen gisa azaltzen diren helburuak betetzen diren ala ez ebaluatuko dute zuzentzaileek.

#### A AUKERA

Bi aukeretan lehenak ekonomiako dibulgazio-testu bat du, komunikabide sozialetatik jasotakoa, eta edukia eta testuko termino tekniko batzuk ulertzea eskatzen da. Galderetan, termino batzuen esanahia aurkeztutako testuaren testuinguruan azaltzea eskatzen da, edo, bestela, testuari lotutako argudio ekonomikoren bat azaltzea. Galdera honek 2 puntu edo **2,5 puntu** balio du, gehienez, goiburuan adierazitakoaren arabera. Definizioak zuzenak izatea eta erabilitako argudio ekonomikoak koherenteak izatea balioetsiko da.

Lehen aukerak beste hiru galdera ditu; haietan, enpresa-ekonomian ezagutza izatea edo oinarrizko teknikak jakitea balioesten da. Galdera horiek gehienez **2,5 puntu** edo **2 puntuko** balorazioa dute, goiburuan adierazitakoaren arabera. Teknika egokiak menderatzea nahiz lortutako emaitzak zuzen interpretatzea balioetsiko da.

Azkenik, lehen aukeran baliteke galdera bat egotea ekonomia-terminoen ezagutza eta haien esanahia adierazteko gaitasuna ebaluatzeko. Galdera horrek **1,5 puntu** balio du, gehienez. Definizioak zuzenak izatea eta erabilitako argudio ekonomikoak koherenteak izatea balioetsiko da.

#### B AUKERA

Bigarren aukerak balantze-analisi bat du. Galdera honek **4 puntu** balio du, gehienez. Hauek balioetsiko dira: teknika egokiak menderatzea, emaitzen esanahi ekonomiko eta finantzarioa interpretatzea, eta, batez ere, lortutako informazioa oinarri hartuta enpresa-egoeraren diagnostikoa egitea eta, ratio sinpleen bidez, desorekak eta desdoitzeak gertatuko balira hautemateko gai izatea. Batez ere, ikaslea emaitzen esanahi ekonomikoa ulertzeko eta interpretatzeko gai izatea balioetsiko da. Akats aritmetikoen kasuan, lehentasuna eman behar zaio ikaslearen arrazoibidearen ebaluazioari, eta ez zenbakizko emaitzaren zuzentasunari.

Bigarren aukerak beste bi galdera ditu; haietan, enpresa-ekonomian ezagutza izatea edo oinarrizko teknikak jakitea balioesten da. Galdera horiek gehienez **2,5 puntu** edo **2 puntuko** balorazioa dute, goiburuan adierazitakoaren arabera.

Azkenik, bigarren aukerako galdera batean, ekonomia-terminoak ezagutzea eta haien esanahia adierazteko gaitasuna ebaluatzen dira. Galdera horrek gehienez **1,5 puntuko** balorazioa du. Definizioak zuzenak izatea eta erabilitako argudio ekonomikoak koherenteak izatea balioetsiko da.

Kalifikatzeko irizpide gisa, alderdi hauek hartu behar dira kontuan, besteak beste: gai honetarako ezarritako gaitasunak ikasleak eskuratuak izatea, enpresaren





## CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

---

ekonomiako tekniken ezagutzari eta haiek aplikatzeko gaitasunari dagokionez; argudio ekonomikoak erabiltzea; ekonomia-terminoak jakitea; eta informazio ekonomiko-finantzarioa interpretatzen jakitea. Gaitasunen eskuratze-maila adierazi behar du kalifikazioak.

Oro har, galdera guztietarako, nahikoa izango da galdetzen zaionari bakarrik erantzutea ikasleak. Balorazio positiboa emango zaie haiei: argitasuna, laburtasuna, galderak zehaztasunez erantzutea, azalpena ordenatuta eta egituratuta ematea, erabiltzen den terminologia egokia izatea, prozedura eta baliabide grafikoak erabiltzea —eskemak, marrazkiak, grafikoak, eta abar—, eta galderei arrazoituta erantzutea.

Probetan gehienez 10 puntu lor daitezke; beraz, 0 eta 10 puntu bitarteko puntuazioa lortu ahal izango du ikasleak. Galderetan lortutako kalifikazioen batura izango da probaren azken kalifikazioa. Galdera bakoitzak bi atal edo gehiago izan ditzake; atal bakoitzaren gehienezko puntuazioa bakoitzaren goiburuan adierazten da.

Proba hauetan, ikasleak erakutsi behar du adimen-heldutasuna duela, enpresen oinarrizko arazo ekonomikoak identifikatzeko eta haiei buruz iritzia emateko abilezia duela eta garrantzi sozialeko fenomenoen analisisian matematika-tresnak aplikatzen dakiela. Halaber, ematen zaion informazioa hautatzeko eta interpretatzeko gai izan behar du, enpresen jarduera ekonomikoaren ondorioz sortzen diren arazoak irizpide ekonomikoen arabera analizatzen eta balioztatzen dituela egiaztatzeko.